



EGITARAU ZEHATZA:

Ostirala, Martxoak 21.

Txantxilan kokaturiko karpa erraldoian gazteentzat eskeintzen den kontzertu kolore anitza. Kultur molde ezberdinen elkarketa.

RAIMUNDO AMADOR (Andaluzia)

DESMOND DEKKER (Jamaika)

FUNDACION TONY MANERO (Katalunia)

LA POLLA (Euskal Herria)

GATIBU (Euskal Herrria)

Aitapontea FERMIN MUGURUZA. ?

Larunbata, Martxoak 22.

Karpa erraldoian:

Eguerdi partean sagardo mostra erraldoia. Gazte eta Helduentzat zuzendua. Jaki gisa Taloak, mondejuak, txorixoa, odolkia, piperrak , makailua, eta gaztaz osaturiko pintxo eta kaxuelak eskeiniko direlarik.

Atzerriko delegazioei harrera. (Txekia, Hungaria, Asturias, Galiza, Normandia, Wales...)

Joaldunak, bertsoak, dantzak eta jotak euskal giro jator bat osatuz.

Arratsalde partean, 16 ak aldera karpa itxiko litzateke. 20 etan berriro zabaltzeko.

Atsegindegiko karpa ttipian:

Euskal Dantza herrikoien erakustaldia Patxi Perezekin, iparraldeko dantzari ezberdinen laguntzaz. Ikusle daudenak dantzan jarri asmoz.

Herriko Fronotian:

Arratsaldeko 17 etan Profesionalen pilota partida ikusgarria. Aitapontea JULIAN RETEGI. ?

Karpa erraldoian:

Gazteentzat eskeintzen den kontzertua.

KURAI (Euskal Herria)

KIKO VENENO (Andaluzia)

GARI (Euskal Herria)

Igandea, Martxoak 23

Herrian zehar:

Artisauen eta euskal produktuen azoka erraldoia. Kale animazioa. Sagardogile bakoitzak bere "stand" propioa ipintzeko aukera dauka, bai produktuak do dena delakoa saltzeko.

Frontoian:

Haurrentzat emanaldi ikusgarria:

TAKOLO PIRRITX ETA PORROTX

+

TXAN MAGOA

Ondoren Kiroldegian:

DISKOFESTA.

Karpa erraldoian:

* Herri kirolak: Harrijasotzaileak, aizkolariak, lokotx biltzaileak, txingak....

* Marka baten hausteko saiakera.

* I. Euskal Herri osoko sagardogileen txapelketa *destaketa*

* Bertsolariak

* Ekitaldia: Sagardo onenen enkantea. Aitapontea: MIKEL LABOA ?

ALBOKA musika taldearen emanaldia. Musikari ezberdinen laguntzaz.
Folk musika.

* Ekitaldiaren amaiera.



Sagardogile agurgarria:

AGUR ETA OHORE!!

Duela gutxi helduko zen zure eskuetara Sagarrondotik ekimenaren xehetasun batzu aipatzen zituen gutuna.

Orain igortzen dizugun honen xedea berriz honakoa da:

Hasiera batean, Euskal Herriko I. Sagardo txapelketa burutzea zen gure asmoa. Martxoak 23, igandeko ekitaldi ezberdinen artean kokatuz berau.

Hala ere, eta sagardogile ezberdinekin iritziak tartekatu ondoren, txapelketak bategiteko baino zatikatzeke eragin handiagoa zuela ohartu gara.

Beraz, eta Sagarrondotik ospakizuna sagardo munduaren topaleku erraldoia delarik, sagardo munduko batasunaren indarrari eman nahi diogu lehentasuna. Hau da, lehiaketak piztu dezakeen erakargarritasuna baztertuz, eta beste bide batzuetatik lortuz. Are gehiago, produktu beraren seriotasuna eta indartzea ipini dugun helburuetako bat izanik.

Honela bada, Martxoak 23ko igandean, Euskal Herri osoko sagardo dastaketa erraldoia antolatu dugu. Iparraldeko eta Hegoaldeko sagardogileen produktuen kata komentatua egingo delarik. Enologo batzuen laguntzaz egingo litzateke hau, (Xabier Kamioren ardurapean), eta sukaldari entzutetsuen presentziarekin. Dastaketa horren bueltan, milaka pertsonentzat eskeintzen den Bufalo eta Txekor jana burutuko genuke, hala nola Euskal Herriko produktu ezberdinen dastaketa (Makailua saltsan, pikilo piperrak, Taloak...).

Bazkari-dastaketa erraldoiaren aurreko asteetan zehar, Usurbil, Astigarraga, Urnieta eta Hernaniko elkarte batzuetan afariak burutu asmo ditugu. Hauetan ere enologoek laguntza izango genuke eta kata komentatuak egitea da ideia. Toki (Herrialde) ezberdinetako sagardoak nahastuz.

Honen harira gatozkizu eskariarekin:

Zure sagardoaren 25 kaxa SAGARRONDOTIK ekimenerako eskeintzea.

Sagardo hau, mostra erraldoietan banatzeko erabiliko litzateke, baita elkarteetako afarietan dastatzeko ere eta igandeko bazkari berezira sailkatzeko. Beraz, badakigu eskeintzen den sagardoak ahalik eta kalitate handienekoa izango dela. Sagardoaren bila antolakuntzako kideak joango lirateke.

Ekimenean partehartzen duen sagardogile orok bere “stand” propioa ipintzeko aukera izango du, bai karpa erraldoiaren eta baita ere burutuko den herriguneko azokan. Bertan, produktua ezagutarazi eta saldu ahalko duelarik. Web orrialdean ere kabida izango luke sagardotegi beraren irudiak eta dohainik eskeintzen dugun publizitateaz jabetuko litzateke.

Honela, eta galderak egiteko nahiz xehetasun gehienak eskuratzeko dei telefono honetara albait arinen:

JOXE MARI 645718447

MILA ESKER.



Agur guztioi,

Eta osasunak eta zorionak luzaroan gorde zaitzate!

Zuengana zuzentzearen arrazoi behinena SAGARRONDOTIK ekimenaren azalpena ematea da.

Sagarrondotik ekimena sagardoaren kultura bultzatzeko eta bermatzeko sortzen da. Sagardoaren ispilu erraldoi eta erreferentzi puntu garrantzitsua bihurtzeko intentzioarekin.

Sagardoaren mundua zatiturik dagoela eta nolabaiteko bilgunea sortu asmoz. Eta batipat Euskal Herri osoaren begietara sagardoaren Kultura helarazteko.

Lehendabiziko esperientzia da, mota honetako jardunaldiak osatzerakoan, inoiz lehenago ez baita joratu antzeko eskeintzarik. Egia da egun bakarreko eta eremu ttipietan lehiaketa eta sagardo mostrak antolatu direla. Inoiz ez da kontatu ordea sagardo munduko hainbeste eragilerekin.

Finean, urterik urte sagardoaren babesle izan direnekin.

Ekimenak sagardoaren lurraldea osatzen duten udalerrien elkartzea bultzatu nahi du. Hau da Usurbil, Astigarraga, Urnieta eta Hernaniko udalak ekimen erraldoi bakar batean bat egitea, ekimen berari babesa emanaz.

Helburu dugu ere herri hauetan sagardoaren gurpilari bueltak eta bueltak eman dizkioten eragile ezberdinentzako topagunea sortzea. Hernaniko Sagardoaren Kofradia Tolarea, Astigarragako sagardogile ezberdinak, Usurbil eta Urnietakoak...Baina era berean Euskal Herri osoko sagardogile ezberdengana heldu nahi dugu. Eta ez dadila ekimen honetatik kanpo inor geratu. Guztien ekarpenarekin indartu nahi baitugu egitaraua.

Jakina, herri bakoitzak bere modura, euskaldunon ondareetako bat den produktuaren lantzeari utzi gabe jarraituko lukete. Eta urtean zeharreko beraien langintza propioa garatzen jarraitu.

Egitarau ikusgarria osatu dugu ekimenaren bueltan. Hau da haur, gazte, eta helduentzat zuzenduriko eskeintza ludiko-kulturalaren eskeintza erakargarria osatuz. Belaunaldien uztarketa bultzatu nahi izan dugu. Eta izaera eta ideologi mugak hautsiaz euskal giroko jardunaldi bereziak osatu. Guztia asteburu baten biran burutzeko asmotan garelarik. Martxoaren 21-22 eta 23 egunetan. Hernaniko herria aukeratu delarik jardunaldien ospatzeko, eta ekimenaren goatzera hurbilduko den jende multzoari harrera egokia eskeintzeko asmoz.

Hala ere, asteburuaren aurreko astean, sagardoaren lurraldea osatzen duten herrietan ekitaldi ezberdinak eramango ditugu aurrera, sagardogileekin hitzaldiak, elkartectan sagardo mostra eta enologi azalpenak.....

Eta Hernaniko herrian, asteburu horretan gisa honetako eskeintza aurkituko du bertaratuko den orok:

Nazio mailako talde indartsuak eskenaratuko ditugu. Batipat gazteei zuzenduz. Sagardoaren lurraldea ezagutzeko parada ekeini nahi diegu Euskal Herri osoko gazteei, horretarako asteburu pasa bat luzatuz: Lo egiteko toki erraldoiak antolatuz, dutxak, motxilak gordetzeko lekuak...Jamaikako Desmond Dekker, Andaluziako Raimundo Amador, Kiko Veneno, Euskal Herriko Kuraia eta La Polla, Kataluniako Fundación Tony Manero... modukoak. Kontzertu Guztiak, Euskal Herriko musika talde zenbaitzurekin nahastu ditugu. Kultur molde ezberdinak garatu asmoz koloredun eskeintza osatzera iritsi nahi bait dugu.

Umeentzat ere eskeintza berezia osatu da. Takolo, Pirritx eta Porrotx eta Txan Magoak eskeiniko duten emanaldi berezi batekin. Halaber gaztetxoek ere tartea izango dute, alkoholik gabeko guneak zabalduko dizkiegularik eta Euskadi Gazteraren diskofestarekin.

Helduagoentzat berriz, Esku Pilota partida ikusgarria dugu, hala nola sagardo mostra erraldoia, eta Bufalo eta Txekor janaz, makailua saltsan, eta Euskal Herriko produktu ezberdinen dastaketa izango duten bazkari erraldoia antolatu dugularik. Herrian zehar azoka erraldoia burutuko da, artisauen eta sagardoaren inguruko produktu ezberdinekin, Eta baita bertsolariak, joaldunak eta euskal dantzak...

Euskal Herriko 1. Sagardo Txapelketa burutzeko asmoa baztertuz Euskal Herri osoko sagardogileen dastaketa eramango dugu aurrera. Hau da, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa, Araba, Laburdi, Baxenafarroa eta Zuberoako sagardogile orori ipiniko dugun karpa erraldoian "stand" propioa edukitzeko aukera emanaz.....

Atzerriko delegazioei ere gonbidapena luzatu zaie, hala nola sagardoaren lurralde ezberdinetako ordezkariak, Txekia, Hungaria, Irlanda, Wales, Asturias, Galiza.....

Dena den, guzti honen xehetasunak aurrerantzean luzatuko zaizkizue.

Eta gaur, xede honekin bildu gara hemen Usurbil, Astigarraga, Hernaniko udalen ordezkariarekin.

Mila esker guztioi.